

Ebazpena: R013/2025

Espedientea: E024/2021

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 8a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeko kideak honako hauek dira: Violeta Ruiz Almendral, presidentea, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese, bokalak. Eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gaia: Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka planteatutako gatazka, zeinaren xedea baita zehaztea zeinen eskumena den NEINOR HOMES,SLU zergapekoari (aurrerantzean, NEINOR; IFK: X00000000) 2015eko BEZa ordainaraztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan tramitatzen ari da, 24/2021 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- NEINOR 2014ko abenduaren 4an eratu zen, LION ASSETS HOLDING COMPANY SL izenarekin, 3.000 euroko kapitalarekin, eta higiezin- eta hirigintza-eragiketa mota guztiak sustatu, kudeatu eta garatzeko xedearekin.

2.- 2014ko abenduaren 26an, diruzkoa ez den kapital-zabalkuntza bat egin zuen; zenbatekoa: 730.149.447 euro. Zabalkuntza honako hauek harpidetu zuten:

- NEINOR INMUEBLES, SAU, NEINOR BARRIA, SAU, NEINOR, SAU, YERECIAL, SLU sozietateek PROMOETXE BIZKAIA, SL sozietatean (egun NEINOR NORTE, SLU) zituzten partaidetzak jarri zituzten; partaidetza horien balioa 274.030.200 eurokoa da.
- NEINOR IBERICA INVERSIONES, SA, NEINOR IBERICA, SAU, CIA PROMOTORA Y DE COMERCIO DEL ESTRECHO, SLU sozietateek PERIMETRO HEGOALDE, SL (egun NEINOR PENINSULA, SL) sozietatean zituzten partaidetzak jarri zituzten; partaidetza horien zenbatekoa 456.116.247 eurokoa da.

3.- 2014ko abenduaren 31n, KUTXABANK entitateak partaidetza hauek eskuratu zituen: NEINOR INMUEBLES, SAU, NEINOR BARRIA, SAU, NEINOR, SAU, YERECIAL, SLU, NEINOR IBERICA INVERSIONES, SA, NEINOR IBERICA, SAU, CIA PROMOTORA Y DE COMERCIO DEL ESTRECHO, SLU sozietateek NEINOR sozietatean zituztenak; eskurapen horrekin, bazkide bakar bihurtu zen.

4.- 2014ko abenduaren 31n, NEINOR sozietateak diruzkoa ez den kapital-zabalkuntza bat egin zuen, 86.728.483 eurokoa: KUTXABANK entitateak harpidetu zuen, hainbat higiezin jarritz.

Eskualdatzea baldintza etengarriaren mende geratu zen, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak baimena eman arte.

5.- 2014ko abenduaren 31n, NEINOR sozietateak azken higiezin horiek PERIMETRO HEGOALDE sozietateari (egun NEINOR PENINSULA, SLU) eskualdatu zizkion, azken horrek egin zuen kapital-zabalkuntza ez-diruzkoa (zenbatekoa: 86.728.483 euro) dela eta.

Eskualdaketa hori baldintza etengarriaren mende geratu zen, higiezin aldez aurreko eskurapena ere baldintza horren mende zegoenez gero.

6.- 2015eko maiatzaren 11n, bete egin zen baldintza etengarria, eta NEINOR eta PERIMETRO HEGOALDE (egun NEINOR PENINSULA) sozietateen kapital-zabalkuntzak eragingarri bihurtu ziren.

7.- Administrazio bakoitzak 2019. urtean hasitako akta bakunen trukea dela-eta (ZAEAk 2020ko ekainaren 26an jaso zituen), NEINOR sozietatearen 2014ko eta 2015eko urteetako BEZari buruzkoak eskatu zitzaizkion BFari.

BFAk 2021eko urtarrilaren 19an erantzun zuen, eta adierazi zuen 2015eko BEZaren akta ez zela trukaturik, ez zelako akta bakuna, 2014an 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu ez zuenez gero.

8.- 2021eko martxoaren 18an, ZAEAk inhibizioa errekeritu zion BFari, 2015eko BEZagatik NEINOR sozietateari ordainarazteko eskumenari dagokionez, ulertzen baitzuen azken horrek eragiketa-bolumenaren proportzioan tributatu behar zuela.

9.- 2021eko apirilaren 16an, BFAk adierazi zuen berretsi egiten zuela bere eskumena, kontsiderazio hauetan oinarrituta:

- 2015eko BEZagatik eragiketa-bolumenaren proportzioan tributatzea ala eskusiboki tributatzea (egoitza fiskaleko) honen mende dago: 2014an 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu zen ala ez, jarduerarekin hasteko urtea 2014 urtea baita.
- KUTXABANK entitateari higiezinak eskuratzea eta horiek PERIMETRO HEGOALDE (egun NEINOR PENINSULA) sozietateari eskualdatzea 2014an egin zela ulertzen da, baldintza etengarria gorabehera.
- Aipatu higiezin eskualdaketa ez da kontuan hartzen eragiketa-bolumenaren ondoreetarako, BEZaren mende ez dagoen eragiketa bat delako.

10.- 2021eko maiatzaren 14an, ZAEAk gatazka planteatu zuen: 24/2021 espediente-zenbakiarekin tramitatu da, prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatuaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen dizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Errekurtsoaren xedea.

Errekurtsoaren xedea da zehaztea ea NEINOR sozietateak 2015eko BEZagatik BFari soilik ordaindu behar zion edo eragiketa-bolumenaren proportzioan, eta, ondorioz, BFAk hasitako akta zuzena den edo akta bakuna izan behar zuen.

Ordainarazteko eskumena zehazteko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

1.- PERIMETRO HEGOALDE, S.L.U. (egun "NEINOR PENÍNSULA, S.L.U.") sozietateari bere kapital-zabalkuntza dela-eta egin zitzaion higiezin-eskualdaketa konputagarria den eragiketa-bolumena kalkulatzeko.

2.- NEINOR sozietateak noiz hasi zuen bere jardura: 2014an ala 2015ean. Hori bi alderdiren mende dago: alde batetik, baldintza 2015ean betetzeak atzeraeraginezko ondoreak izan ditzala 2014an; eta, beste aldetik, KUTXABANK entitateak jarritako higiezinen eskurapena har dadila higiezinok enpresaren jardueran erabiltzeko xede objektiboa duen ondasun-eskurapentzat.

3.- Higiezin horiek gero PERIMETRO HEGOALDE (egun NEINOR PENÍNSULA SLU) sozietateari noiz eskualdatu zitzaizkion: 2014an ala 2015ean. Hori honako honen mende dago: baldintza 2015ean betetzeak atzeraeraginezko ondoreak izan ditzala 2014an.

3.- Eragiketa-bolumena zehaztea.

3.1.- Aplikatu beharreko araudia.

Ekonomia Itunaren 14.Bi artikuluan, hau esaten da sozietateen gaineko zergari dagokionez.

“Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak joko dira balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak”.

Bestalde, Ekonomia Itunaren 27.Bi artikulua honako hau dio BEZari dagokionez:

“Eragiketa-bolumen guztizkotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago”.

Nabarmentzen den lehenengoa da Ekonomia Itunean eragiketa-bolumenaren definizioa berbera dela sozietateen gaineko zergarentzat eta BEZarentzat (diferentzia logikoa: 27.Bi artikulua ez du BEZaren araudira jotzen, ondasun-ematea eta zerbitzu-prestazioa zer diren zehazteko).

Hauteman daitekeen diferentzia bakarra da sozietateen gaineko zergan erreferentzia-aldia ekitaldi ekonomikoa dela, eta BEZari dagokionez, egutegiko urtea; horregatik, sozietateen gaineko zergaren eta BEZaren ondoreetarako eragiketa-bolumenaren zifra normalean ez da bat etorriko kasu honetan: zergapetuen ekitaldi ekonomikoa egutegiko urtearekin bat ez datorrenean.

3.2.- Eragiketa-bolumenaren kontzeptua.

Eragiketa-bolumenean zer kontzeptu sartzen diren zehazteko, zerga-baliabideen banaketa-arauaren perspektibatik edo alderditik aztertuko dugu Ekonomia Ituna.

Arau orokor gisa, Ekonomia Itunak zerga-baliabideak eta horiek kudeatzeko behar diren eskumenak (“kudeaketa” terminoaren zentzu zabalean, barne hartuta diru-bilketa, ikuskaritza, errekurso bidez berrikustea, etab.) Administrazio bakar bati izendatuz banantzen ditu, sinplifikazio-irizpidea baliatuta. Horretarako, lotune objektibo batzuk erabiltzen ditu (egoitza, higiezinaren kokapena, etab.). Administrazio bakarrari izendatzeak (izendapen eksklusiboak) finantza-zehaztasuna uztea dakar (zehaztasun horrek eskatuko bailuke, adibidez, PFEZan errenta-iturri desberdinak bereiztea, eta lan-etekina zerbitzuak ematen diren lekuko Administrazioari izendatzea, kapital higiezinaren etekinak alokatutako higiezinak dauden lekuari, etab.); baina ulertzen da efizientzia ezak konpentsatu egiten direla, oro har.

Salbuespen gisa, BEZan, SZn eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, zenbait atxikipenez gainera, tributuen izendapen eksklusiboa tamaina jakin bat gainditzen ez duten zergapekoei soilik aplikatzen zaie, sinplifikazio-irizpidea aplikatuta: Ekonomia Itunaren arabera, aurreko ekitaldi-urtean 7.000.000 euroko eragiketa-bolumenaren atalasea gainditu ez duten zergapekoei (zifra hori indarrean zen 2015ean).

Horrela, eragiketa-bolumenaren kontzeptua da Ekonomia Itunak aipatzen duena 7.000.000 euroko atalasea iristen den kalkulatzeko.

Eragiketa-bolumena ondasun-emate edo zerbitzu-prestazioengatik kontraprestazioen zenbateko gisa definitzen da; beraz, eragiketa jakin bat eragiketa-bolumenean sartu behar den edo ez jakiteko, kontuan hartu behar da BEZaren Legearen arabera ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio gisa kalifikatu daitekeen edo ez.

BEZaren Legearen 8. artikulua definitzen duenez, ondasun-ematea da ondasun gorpuzdun bat erabiltzeko ahala eskualdatzea (logikoki, BEZaren Legearen 4. artikuluen arabera, betiere enpresari edo profesional batek bere jardueran egiten duena, ohikotasunez edo aldizka eta kostu bidez); eta BEZaren Legearen 11. artikulua definitzen duenez, zerbitzu-prestazioa da ondasun-ematea, Europar Batasunaren barruko eskurapena edo inportazioa ez den eragiketa zergapetu oro.

Horren arabera, BEZaren Legearen 7. artikuluan jasotzen diren eragiketa ez-zergapetuak honako hauek dira: zergapetuta egongo liratekeen ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak, baldin eta artikulua honek espresuki ez-zergapetutzat deklaratu ez balitu.

Are gehiago: 7. artikuluko eragiketak ez balira ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak, ez legoke ez-zergapetutzat deklaratzeko beharrik, ez bailirateke zergapetuta egongo BEZaren zerga-egitatea ez izateagatik.

Ondorioz, eragiketa ez-zergapetuak kontuan hartzen dira eragiketa-bolumena kalkulatzeko.

Horretaz gainera, eta arrazoibide horren arabera, eragiketa-bolumenean sartzen dira zergapetuak egiten dituen eragiketa guztiak baldin eta horiek ondasun-ematez edo zerbitzu-prestaziotzat jo badaitezke, izan zergapetuak edo ez —kontuan hartu gabe zergatik den ez-zergapetua: zerga aplikatzeko lurraldetik (ZAL) kanpo egoteagatik edo kontzeptuagatik (BEZaren Legearen 7. artikulua)—, eta izan salbuetsiak (mugatuak edo osoak) edo ez-salbuetsiak.

Ikusitakoagatik erraz ulertzekoa den arren, Arbitraje Batzordearen 4/2009 Ebazpenean ere adierazi zen Ekonomia Itunaren ondoreetarako eragiketa-bolumena ez datorrela bat BEZaren Legearen 121. artikuluekin.

3.3.- Bizkaiko Foru Ogasunaren Zuzendaritza Nagusiaren 7/2005 eta 7/2008 Jarraibideak.

BFaren Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 7/2005 Jarraibidea, Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren ondoreetarako eragiketa-bolumenaren kontzeptua interpretatzeari buruzkoa: lehenengo apartatuan adierazten denez, eragiketa-bolumena zehazteko, kontuan hartuko dira eragiketa hauei buruzko kontraprestazioak:

- Ondasun-emateak (aurrerantzean OE) eta zerbitzu-emateak (aurrerantzean ZE), ohikoak eta lantzean behingoak, subjektu pasiboak bere jardueran egindakoak.
- Ordainketa aurreratuen zenbatekoak.
- (...).
- Prezioari lotutako dirulaguntzak, zerga-oinarria osatzen dutenak.

Jarraibidearen hirugarren apartatuan adierazten denez “Jarraibide honetako lehenengo idatz-zatian ezarritakoaren ondoreetarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko ondasun-emate eta zerbitzugintza guztiak hartu behar dira kontuan, are salbuetsita daudenak ere”.

BFaren Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 7/2008 Jarraibideak aldatu egin zuen 7/2005 Jarraibidea, soil-soilik lehenengo apartatuak aurrerakinei buruz adierazten duenari dagokionez; beraz, isilbidez berresten du hirugarren apartatuan xedatua.

3.4.- Eragiketa-bolumena, lotune gisa.

Aurreko ekitaldian (adibidez, X1) eragiketa-bolumenean 7.000.000 euro (ratione temporis aplikatzeko zenbatekoa) gainditu ez duten zergapekoek honela tributatu dute: tributazioaren ekitaldi-urteko (X2, adibideari jarraituz) sortzapen-egunean egoitza fiskala duten administrazioan soilik.

Aldiz, aurreko ekitaldi-urtean (X1) eragiketa-bolumenean 7.000.000 euro gainditu badute, tributazioaren ekitaldi-urteko (X2) eragiketa-bolumenaren proportzioan tributatu dute uneko ekitaldi-urtean (X2).

3.5.- Aipatu eragiketa-bolumenaren proportzioa, lotune gisa.

Eragiketa-bolumenaren proportzioan egingo den tributazioa zein araudiren arabera egingo den zehazteko, eta tributu-betebeharren betetzea zein administrazioek ikuskatu dezakeen zehazteko, zehaztu egin behar da, aurrez definitutako aurreko ekitaldi-urteko eragiketa-bolumenetik abiatuta, kalkuluan kontuan hartu diren eragiketen zein proportzio egin den Euskal Autonomia Erkidegoan eta lurralde erkidean (Nafarroa barnean da, ondore honetarako), aintzat hartuta Ekonomia Ituneko eragiketen kokapen-arauak (zeinak funtsean berdinak baitira sozietateen gaineko zergarako eta BEZerako, baina desberdinak baitira BEZaren Legearen 68. artikulutik 70. artikulura jasotakoetatik).

Ekonomia Itunaren 14.Bat artikuluko 2. paragrafoan hau adierazten da Sozietateen gaineko Zergari dagokionez:

“Hala ere, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa-bolumenaren % 75 edo gehiago

lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek lurralde erkideko araudia bete beharko dute”.

Ekonomia Itunaren 19.Bat. artikuluko 2. paragrafoan hau adierazten da sozietateen gaineko zergari dagokionez:

“Hala ere, subjektu pasiboen aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretan eragiketa-bolumenaren % 75 edo gehiago lurralde erkidean egin bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da”.

Ekonomia Itunaren 29.Sei artikuluan hau adierazten da BEZari dagokionez:

“Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

- a) Zerga foru-aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko tributu-ikuskaritzen lana izango da.
- b) Zerga lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

Lehenengoa. Egoitza fiskala lurralde erkidean daukaten subjektu pasiboak: Estatuko Administrazioko organoek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa. Administrazio horrek, era berean, subjektu pasiboak administrazio eskudun guztietan zergen aldetik duen egoera erregularizatzeko lana hartuko du, administrazio batari eta besteari dagokion zerga-proporzioa barne.

Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago Euskadiko lurraldean egin bada —edo % 100, erakunde-talderako araubide berezian sartzen diren erakundeen kasuan—, zehaztutako lotuneen arabera, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo ditu egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe.

Bigarrena. Egoitza fiskala Euskadiko lurraldean daukaten subjektu pasiboak: egoitza fiskalari dagokion foru-administrazioko organo eskudunek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe. Ondorioak administrazio eskudun guztietan izango ditu, administrazio horiei dagokien tributazio-proporzioa barne. Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago lurralde erkidean egin bada, zehaztutako lotuneen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru-aldundiekiko elkarlana eragotzi gabe”.

Horiek horrela, baldin eta aurreko ekitaldiko (X1) eragiketa-bolumenaren kalkuluan kontuan hartu ziren eragiketen %25 baino gehiago egin badira tributazio-ekitaldiko (X2) sortzapen-egunean zergapetuak egoitza fiskala duen lurraldean, lurralde horretako araudia aplikatuko da, eta hori izango da ikuskaritza egiteko administrazio eskuduna.

3.6.- Eragiketa-bolumenaren proportzioa, lotune gisa.

Proportzioan tributatu behar duten zergapekoek honela tributatuko dute: ordainarazpen-eskumena duten administrazioetan, tributazio-ekitaldian (X2) egindako eragiketa-bolumenaren proportzioaren arabera.

Eragiketa-bolumenaren proportzioa kalkulatzeko kontuan hartzen diren eragiketen analisia.

Ekonomia Itunaren 18. Lehenengoa artikulua, sozietate-zergagatik proportzioan ordaindu behar duten zergapekoei dagokionez, honako hau adierazten du:

“Zerga likidatuta lortutako emaitza Estatuko eta Euskadiko administrazioei egotziko zaie, zergaldi bakoitzean lurralde batean eta bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera”.

Ekonomia Itunaren 29. Bat artikulua, BEZari dagokionez, honako hau adierazten du:

“Zergaren likidazioen emaitza administrazio eskudunei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Kontraprestazio horiek kargapeko ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioei dagozkie, baita salbuetsiei ere kenkarirako eskubidea badakarte”.

Horrela, tributazio-proportzioa zehazteko, sozietateen gaineko zergan eragiketa guztiak hartuko dira kontuan, salbu zergaren mende ez daudenak, kanpoan egin direla ulertuta (Itunaren kokapen-arauen arabera).

Aldiz, tributazio-proportzioa zehazteko, balio erantsiaren gaineko zergan eragiketa guztiak hartuko dira kontuan, salbu zergaren mende ez daudenak — bai kontzeptuagatik (BEZaren Legearen 7. artikulua), bai ZALetik kanpo kokatuta egoteagatik— eta salbuetsi mugatuak (BEZaren Legearen 20. artikulua).

Ezbairik gabe, balio erantsiaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren ondoretarako eragiketa-bolumenaren proportzioa ez litzateke bat etorri behar hainbanaketa bidez tributatu behar duten zergapekoen kasuan.

4.- Ordainarazteko eskumena.

Kontuan hartuta higiezin-eskualdaketaren gainean dagoen baldintza etengarria dela bete dadila higiezinak eskuratu aurreko baldintza etengarria, jardueraren hasiera (KUTXABANK entitateak jarritako eta baldintza etengarriaren mendeko higiezinaren eskurapenari lotuta) eta emate-eguna (PERIMETRO HEGOALDE sozietateari eskualdatzeari lotuta, zeina baldintza etengarri beraren mende baitago) ezinbestean ulertu behar dira urte berean egindakotzat, eta berdin izango da urte hori 2014 edo 2015 izatea, zeren eta kasu bietan gainditu egingo

bailitzateke eragiketa-bolumenaren proportzioaren arabera tributatzera behartzen duen eragiketa-bolumenaren atalasea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

- 1.- Adieraztea NEINOR HOMES, SLU sozietateak eragiketa-bolumenen proportzioan ordaindu behar zuela 2015eko BEZagatik.
- 2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta NEINOR HOMES, SLU sozietateari jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.